
IKARO

Testua eta irudiak: **FEDERICO DELICADO**

Itzulpena: **FERNANDO REY**

Kartoi gogorrean koadernatua. 22 x 27,5 cm. 40 orrialde. 15 €.

ALBUM IRUDIDUNAK EGITEKO "COMPOSTELA" NAZIOARTEKO VII. SARIA

Ikaro (euskara)

ISBN 978-84-7681-858-9. Compostela Saria.

Ícaro (gaztelania)

ISBN 978-84-8464-886-4. Premio Compostela.

Ícaro (galegoa)

ISBN 978-84-8464-903-8. Premio Compostela.

Ícar (katalana)

ISBN 978-84-8464-902-1. Premi Compostela.

Ícaro (portugesara)

ISBN 978-989-749-032-3. Prémio Compostela.

–Esadazu, zenbat denbora daramazu bakarrik?

–Hilabete bat edo, noski...

–Eta ba al duzu arrastorik non egon litezkeen zure gurasoak?

–Bai, horixe. Badakit.

–Eta, beraz, nola aurkituko ditugu?


–Ezinezkoa da.

Ume bat harrera-zentro batera ailegatu da, eta bertako profesionalak umearen gurasoak non eta nor diren jakin nahi dute. Baina, denek uste dutenaz bestera, ez da ume abandonatu bat. Istorio eder honen protagonistak beste errealitate baten berri emanen digu, konbentzionalismoetatik urrun dagoen beste ikuskera bat.

Ikaro izeneko liburuak –Album Irudidunak egiteko “Compostela” Nazioarteko VII. Sariaren irabazlea– askatasuna, desberdintasuna eta esperantza ditu mami. Haren mezuak bat egiten du korrontearen kontra doazen pertsonen ibilbidearekin. Maiz gure ingurua ez baita gauza izaten axaleko gauzez haratago ikusteko, bestelako errealitateak ikusteko.

Federico Delicadoren obra bi planotan gertatzen da aldi berean: batetik, errealitatea eta zientzia fisiko edo sozialak, *establishment*aren zerbitzura daudenak; eta, bestetik, fantasia eta artea, adierazpide gisara. Bi une ere ageri dira: orainaldia, ziurgabetasunak markatua, eta iraganeko denbora bat, familiaren egoera azaltzen duena. Ikuspuntu estetikoan, nagusi dira tonu apalak eta kolore biziak, eta, Hopper gogorarazten duten irudiak ere bai.

Testua –Ikaroren mitoa eta Kafkaren lana ekartzen ditu gogora– modu metaforikoan irakur daiteke: borondatea ezinbestekoa da egoera zaileri aurre egiteko, eta aberasgarria da norberaren bizitzan fantasia txertatzea. Errealitatean gertatzen den oro ez baita egiazkoa. Ez baitugu izan behar hegan egoteko beldurrik.



■ **Gaia:** dibertsitatea.


■ **Adin egokia:** 8 urtetik aurrera.

■ **Nabarmetzeko modukoak:** Album irudidunak egiteko “Compostela” Nazioarteko VII. Saria irabazi duen lana; askatasuna, desberdintasuna, errealitatea fantasiaren aurrean; ametsak, irakurketa metaforikoa.

Federico Delicado

(Badajoz, 1956)

Lizentziaduna Madrilgo Universidad Complutente-an. 1970ean eman zion hasiera bere ibilbide profesionalari, prentsarentzako ikus-entzunezko material eta lanak eginez. Pintura eta eskultura erakusketa zenbaitetan hartu du parte. Azkeneko urteetan, haur eta gazteentzako liburu ugari argitaratu ditu.



www.**Kalandraka**.com

comunicacion@kalandraka.com

www.**Pamiela**.com
etxea
soitxate@damiela.com